

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3574

*1181/2024 EBAZPENA, uztailaren 10ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen diren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin betiko esleitzen diren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Farmaziako Fakultatibo Teknikoa kategoriako / lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko abenduko zikloan eskainitako destinoak.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1307/2021 Ebazpenaren bidez (azaroaren 8ko EHAA 221. zk.), lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrerako deialdia egin zen Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Farmaziako Fakultatibo Teknikoa kategoriarako Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinean jasotako oinarrien arabera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren abenduaren 11ko 1670/2023 Ebazpenaren bidez (abenduaren 27ko EHAA 245. zk.), lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko abenduko zikloko eskaintza argitara eman zen Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Farmaziako Fakultatibo Teknikoa kategoria/lanpostu funtzionalerako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren ekainaren 11ko 438/2024 Ebazpenaren bidez, argitara eman ziren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin-behinean esleitu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Farmaziako Fakultatibo Teknikoa kategoriako / lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko abenduko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko. Bada, erabaki horren eranskinaren 9.8 oinarrian ezarritakoarekin bat etorritz, epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiarri bidali dio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten urriaren 21eko 1307/2021 Ebazpeneko Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Farmaziako Fakultatibo Teknikoa kategoriako destinoen esleipenari dagokion behin betiko zerrenda. Hortaz, indarrean dagoen legediak langileen arloan ematen dizkidan ahalmenez baliatuta,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea, ebazpen honen I. eranskinaren bidez, Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Farmaziako Fakultatibo Teknikoa kategoriako destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko abenduko zikloan onartutako langileen behin betiko zerrenda, lortutako guztizko puntuazioaren hurrenkeran. Hain zuzen, destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren abenduaren 11ko 1670/2023 Ebazpenean daude jasota.

2024ko uztailaren 22a, astelehena

Bigarrena.– Onartzea, ebazpen honekin batera doan II. eranskinaren bidez, Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Farmaziako Fakultatibo Teknikoa kategoriako destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko abenduko zikloan baztertutako langileen behin betiko zerrenda, baztertzeko arrazoiak adierazita. Hain zuzen, destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren abenduaren 11ko 1670/2023 Ebazpenean daude jasota.

Hirugarrena.– Ebazpen honen III. eranskinaren bidez argitara emateko agintzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren abenduaren 11ko 1670/2023 Ebazpenaren eranskinetan eskainitako lanpostu funtzionalari dagozkion destinoen esleipendunen behin betiko zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Laugarrena.– Behin betiko esleitutako destinoei ezin zaie uko egin, salbu eta uko egite hori beste administrazio publiko edo osasun-zerbitzu batek egindako borondatezko behin betiko mugikortasun-prozedura baten deialdiaren ebazpenari jarraiki destino bat lortzearen ondorioz bada –Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 37.4 artikuluan ezarritakoaren arabera– edo izendapen askeko izendapen baten ondorioz bada.

Bosgarrena.– Destinoa lortzen duten izangaiek betetzen ari diren destinoa utzi beharko dute, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo hiru egun balioduneko epearen barruan.

Izangaiek, oro har, aurreko destinoa utzi eta hiru eguneko epean jabetu beharko dira lanpostuaz, baldin eta lanpostuak herri berean badaude; bost eguneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri batean badaude; eta hilabeteko epean, izangaiek osasun-zerbitzuz aldatu behar badute. Langileek, emandako destinoaren bidez zerbitzu aktibora itzultzen badira, hilabeteko epea izango dute lanpostuaz jabetzeko, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Lanpostuaz jabetzerakoan esleipenduna zerbitzu-eginkizunetan, aldi baterako barne-sustapenean edo behin-behineko atxikipenean badago Osakidetzan, 2019ko azaroaren 27ko 9.9.3 apartatuan aurreikusten den epea izango du lanpostuaz jabetzeko. Hala ere, epe hori konputatzeko, betetzen duen destinoa ere kontuan hartu beharko da, azken horren esleipenduna ez bada behintzat. Horrela izanez gero, lanpostuaz jabetuko da EHAA destinoa behin betiko esleitzeko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunean, baldin eta behin-behineko atxikipenean badago, edo, bestela, kargua-utzi eta hurrengo egunean, baldin eta zerbitzu-eginkizunetan eta aldi baterako barne-sustapenean badago.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Zazpigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 9.8. oinarrian xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAA argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 10a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2024ko uztailaren 22a, astelehena

## I. ERANSKINA

1670/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA

ONARTUEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: FAK. FARMAZIALARI TEKNIKARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: FAK. FARMAZIALARI TEKNIKARIA

Ordena	NAN	Izen-abizenak
1	***8152**	Prieto Blanco, Maria

2024ko uztailaren 22a, astelehena

## II. ERANSKINA

1670/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA

BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: FAK. FARMAZIALARI TEKNIKARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: FAK. FARMAZIALARI TEKNIKARIA

NAN	Izen-Abizenak	Baztertzeko Arrazoia
***6250**	Estevez Aranaga, Izaskun	Ez du plazarik kategorian
		Ez da estatutario finkoa
		Ez du 2.1.2. oinarria betetzen

2024ko uztailaren 22a, astelehena

III. ERANSKINA  
1670/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA  
LANPOSTUEN BEHIN BETIKO ESLEIPENA  
KATEGORIA: FAK. FARMAZIALARI TEKNIKARIA  
LANPOSTU FUNTZIONALA: FAKULTATIBO FARMAZIALARI TEKNIKARIA

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako Erakundea	Destinoa	HE	Derrig. data
***8152**	Prieto Blanco, Maria	Arabako ESI	Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / AUOKo Administrazioa (Adriano-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria-Vitoria-Gasteiz / Farmazia Unitatea-Farmazia Unitatea-Farmazia Unitatea / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2	2023-05-29